

*CAJA LABORAL 2040*  
**PENTSIO PLANAREN EZAUGARRIAK**

## **AURKIBIDEA**

### **I. ATALA: IZENA, ARAUBIDEA, HELBURUA, MODALITATEA ETA IRAUPENA**

1. artikulua: Izena
2. artikulua: Araubide juridikoa
3. artikulua: Helburua
4. artikulua: Modalitatea
5. artikulua: Iraupena

### **II. ATALA: ELEMENTU PERTSONALAK**

6. artikulua: Elementu pertsonalak
7. artikulua: Entitate sustatzailea edo Sustatzailea
8. artikulua: Partaideak
9. artikulua: Eteneko partaideak
10. artikulua: Onuradunak

### **III. ATALA: PENTSIÓ FONDO BATEAN SARTUTA**

11. artikulua: Pentsio Fondoaren identifikazioa
12. artikulua: Planak Fondoan duen partaidetza-kontua

### **IV. ATALA: FINANTZAKETA SISTEMA ETA ESKUBIDE KONTOLIDATUAK**

13. artikulua: Finantzaketa Sistema eta Kapitalizazio Fondoak
14. artikulua: Eskubide Kontsolidatuaren definizioa
15. artikulua: Eskubide Kontsolidatuen zehaztapena
16. artikulua: Kontu-unitatearen balioa
17. artikulua: Eskubide Kontsolidatuen ordainketa
18. artikulua: Eskubide Kontsolidatuak beste plan batera pasatzea
19. artikulua: Eteneko partaideen eskubide kontsolidatuak
20. artikulua: Transferentzia gauzatzeko epea

### **V. ATALA: PENTSIÓ PLANAREN SUSTATZAILEAREN EGINKIZUNAK**

21. artikulua: Pentsio Planaren sustatzailearen eginkizunak

### **VI. ATALA: PARTAIDEEN DEFENDATZAILEA**

22. artikulua: Araubide juridikoa
23. artikulua: Kontzeptua
24. artikulua: Izendapena
25. artikulua: Erabakien izaera
26. artikulua: Gastuak
27. artikulua: Funtzionamendu-arauak

### **VII. ATALA: PARTAIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

- 28. artikulua: Partaideen eskubideak
- 29. artikulua: Partaideen betebeharrak
- 30. artikulua: Onuradunen eskubideak
- 31. artikulua: Onuradunen betebeharrak

### **VIII. ATALA: PRESTAZIOAK**

- 32. artikulua: Definizioa eta izaera
- 33. artikulua: Estalitako kontingentziak
- 34. artikulua: Prestazioa kobratzeko moduak
- 35. artikulua: Prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortpena
- 36. artikulua: Prestazioen zenbatekoa

### **IX. ATALA: EKARPENAK**

- 37. artikulua: Ekarpenen maiztasuna
- 38. artikulua: Gutxieneko ekarpena
- 39. artikulua: Aparteko ekarpenak
- 40. artikulua: Ekarpenen urteko muga
- 41. artikulua: Soberako ekarpenen itzulketa
- 42. artikulua: Onuradunen ekarpenak
- 43. artikulua: Ordainagirien ordainketa
- 44. artikulua: Ekarpenen, eskubideen eta betebeharren aldaketa eta etendura

### **X. ATALA: PARTAIDEEN ALTAK ETA BAJAK**

- 45. artikulua: Alta-eskaera
- 46. artikulua: Benetako alta
- 47. artikulua: Partaideei eman beharreko dokumentazioa
- 48. artikulua: Partaideen baja

### **XI. ATALA: PLANAREN BERRIKUSPENA ETA ALDAKETA**

- 49. artikulua: Finantza- eta aktuario-sistemaren berrikuspena
- 50. artikulua: Plana aldatzeko baldintzak eta prozedurak

### **XII. ATALA: PLANA BUKATZEKO ARRAZOIAK ETA PLANA LIKIDATZEKO ARAUAK**

- 51. artikulua: Plana amaitzeko arrazoiak
- 52. artikulua: Desegitea eta likidazioa

## **I. ATALA.- IZENA, ARAUBIDEA, HELBURUA, MODALITATEA ETA IRAUPENA**

### **1. artikulua.- Izena**

Araudi honen bitartez PLAN DE PENSIONES CAJA LABORAL 2040 izeneko Pentsio Plana arautzen da. Araudiak Planaren, sustatzaileen, partaideen eta onuradunen arteko harremanetarako arauak zehazten ditu, eta aipatutako horiek guztiek Araudi honetan biltzen diren arau guztiak onartzeko betebeharra dute.

### **2. artikulua.- Araubide juridikoa**

Plana honako hauek zuzenduko dute: azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak [ Pentsio Plan eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen du ] , otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuak onartutako horien araudiak, une bakoitzean aplikagarri izan dakizkiokeen era guztietako xedapenek eta araudi honek ezartzen duenak.

### **3. artikulua.- Helburua**

Planaren bidez, onuradunek errentak edo kapitalak jasotzeko eskubidea dute, erretiratzeko direnean, bizirik irauteko behar dutenean, alargun geratzean, umezurtz geratzean, ohiko lanbiderako ezintasun osoa eta iraunkorra gertatzen zaienean, eta era guztietako lanetarako ezintasun absolutua eta iraunkorra edo baliaezintasun handia etortzen zaienean. Planak, halaber, beharrezkoak diren ekarpenak partaideek nola eta zenbateko kopuruan egin behar dituzten zehazten du eta, azkenik, bertan aitortzen diren eskubideak betetzeko, ondarea eratu eta funtzionatzeko moduari buruzko arauak biltzen ditu.

### **4. artikulua.- Modalitatea**

Pentsio Plan hau Sistema Indibidualeko Plana da, berori eratzen dutenen izaeragatik; bestalde, ezarritako betebeharren arabera, ekarpen zehaztuko Planen modalitatekoa da.

### **5. artikulua.- Iraupena**

Planaren iraupena mugagabea da, Araudi honetan edo legeria aplikagarrian aurreikusten den arazoietako bat gertatzen denean bertan behera geratu badaiteke ere.

## **II. ATALA.- ELEMENTU PERTSONALAK**

### **6. artikulua.- Elementu pertsonalak**

Hauek dira Planaren elementu pertsonalak: batetik, sustatzailea eta partaideak, subjektu eratzailleak diren aldetik, eta, bestetik, azken horien onuradunak, ondoren datozen artikuluetan zehazten denaren arabera.

### **7. artikulua.- Planaren Entitate sustatzailea edo Sustatzailea**

Plana sortzeko eskatzen duen pertsona juridikoa da. CAJA LABORAL 2040 Planaren Entitate sustatzailea edo Sustatzailea CAJA LABORAL PENSIONES, SA, GFP da. Arrasaten [ Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g. ] du egoitza.

## **8. artikulua.- Partaideak**

Plana sortzearen arrazoi diren pertsona fisiko guztiak dira partaide, izaera hori hartzen dutenetik eta eusten dioten bitartean.

Planari atxikitzea eskatzen duten pertsona fisiko guztiak izan daitezke partaide, Planean aurreikusitako ekarpenak egiteko betebeharra hartzen badute.

Partaide egiteko Planari Atxikitze Buletina harpidetu eta Entitate Kudeatzailearen eta/edo Gordailuzainaren onarpena jaso behar da.

Partaide izateari, berriz, halakoetan utziko zaio: hiltzean, onuradun bihurtzean eta eskubide kontsolidatuak beste Pentsio Plan batera pasatzean, aurretik eskaria eginda.

## **9. artikulua.- Eteneko partaideak**

Urte naturalean zehar ekarpenak egiteari utzi dion baina Planaren aurreikuspenen arabera eskubide kontsolidatuak izaten jarraitzen duen partaideari deritzo eteneko partaide.

Eteneko partaideek bi aukera hauek dituzte:

- a) Planari berriro ekarpenak egiten hasi eta Partaide bihurtzea.
- b) Prestazioa sortzen duen kontingentzia gertatu arte eskubide kontsolidatuei eustea.

Bestalde, partaideei araudi honetako 28 eta 29 artikuluetan aitortzen zaizkien eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte eteneko partaideek ere.

## **10. artikulua.- Onuradunak**

Plan honetako partaide izanda nahiz izan gabe prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsona fisikoak dira CAJA LABORAL 2040 Pentsio Planaren onuradunak. Zehazki, hauek:

- a) Partaide bera, erretiroa, ohiko lanbiderako ezintasun oso eta iraunkorra, era guztietako lanetarako ezintasun absolutu eta iraunkorra edo baliaezintasun handia etortzen zaionean.
- b) Planari Atxikitze Buletinean, Partaide hiltzen denean sortuko diren prestazioen atalean, Partaideak izendatutako pertsonak.  
Partaide onuradunik izendatu gabe hiltzen bada edo onuradun horiek bera baino lehenago hiltzen badira, hauek izango dira Plan honetako heriotzagatiko prestazioen onuradunak, bertan adierazten den ordenan: bizirik dagoen ezkontidea, seme-alabak; gurasoak eta Kode Zibilak testamentu gabeko oinordetzarako ezartzen dituen arauen arabera Legezko Oinordekoak, guztiak ere Partaidearenak.

- c) Plan honen onuradunetako bat hilez gero, bere garaian prestazioa errenta-moduan jasotzea aukeratu bazuen, onuradunak hark aukeratutako errenta-modalitatean heriotza-kasuetarako zehazten direnak izango dira.

### **III. ATALA.- PENSIO FONDO BATEAN SARTUTA**

#### **11. artikulua.- Pentsio Fondoaren identifikazioa**

##### 1. Pentsio Fondoa

Pentsio Fondoa Pentsio Plana betetzeko sortutako ondarea da. Ez daukate nortasun juridikorik eta Entitate Kudeatzaile batek administratzen ditu, Entitate Gordailuzain batek esku hartuta eta Planaren Entitate sustatzaileak gainbegiratuta.

Planari egiten zaizkion ekarpenak edo kuotak Planaren Pentsio Fondoan sartuko dira berehala eta nahitaez.

CAJA LABORAL 2040 Pentsio Planak atxikita duen Pentsio Fondoa CAJA LABORAL 2040, FONDO DE PENSIONES da. Aseguruen Zuzendaritza Nagusiaren Administrazio Erregistroan F-2029 zenbakiarekin dago jasota.

Entitate sustatzaileak Plana Fondotik bereiztea proposatu dezake. Horretarako, beharrezkoa izango da dagokion erabakia hartzea, bai eta Planak hartuko duen Fondo berria izendatzeko ere.

##### 2. Entitate Kudeatzailea

CAJA LABORAL PENSIONES SA GESTORA DE FONDOS DE PENSIONES da Pentsio Fondoaren Entitate Kudeatzailea, hau da, bera arduratuko da Plana administratzeaz. G-0217 zenbakiarekin dago erregistratuta Ekonomia eta Hazienda Ministerioaren Aseguruen Zuzendaritza Nagusiko Pentsio Fondoan Entitate Kudeatzaileen Erregistro Berezian.

##### 3. Gordailuzaina

CAJA LABORAL POPULAR, COOP. CRÉDITO □ LAN KIDE AURREZKIA da Pentsio Fondoaren Entitate Gordailuzaina. Arrasaten □ Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g.□ du egoitza, eta D-0194 zenbakiarekin dago erregistratuta entitate Gordailuzain gisara, Aseguruen Zuzendaritza Nagusiko Administrazio Erregistroan. Pentsio Fondoko balore transferigarriak eta bestelakoak zaintzea eta gordailutzea da bere egitekoa.

#### **12. artikulua.- Planak Fondoan duen partaidetza-kontua**

Ohiko ekarpenak, baita Planari dagozkion ondasunak eta eskubideak ere, Planak pentsio-fondoan duen partaidetza-kontuan bilduko dira. Kontu horren bitartez erantzungo zaie Planaren ondoriozko prestazioei. Halaber, Pentsio Fondoaren inbertsioetatik sortzen diren

errentak ere jasoko ditu, baita horren gastuak ere, Planari lotutakoak direnean, araudi honetako xedapenen arabera eta pentsio-fondo bakoitzaren integrazioaren ezaugarriak zehazten dituzten hitzarmen berariazkoen arabera.

#### **IV. ATALA.- FINANTZAKETA SISTEMA ETA ESKUBIDE KONTOLIDATUAK**

##### **13. artikulua.- Finantzaketa Sistema eta Kapitalizazio Fondoa**

Plana araudi honek garatzen duen kapitalizazio-sistema indibidualean oinarrituko da, partekatzen duen finantza-araubidea gauzatzeko.

Partaideen eskubide kontsolidatuak eta, azken buruan, onuradunen eskubide ekonomikoak Partaideek Planari egiten dizkioten ekarpenek zehaztuko dituzte.

Ondorioz, partaide bakoitzak Planean dituen eskubide kontsolidatuek ez dute zerikusirik izango gainerako partaideen eskubideekin.

Partaideen eskubide kontsolidatuen eta onuradunen eskubide ekonomikoen baturak Kapitalizazio Fondoa osatuko du. Hau da, ekarpenek eta horiekin egindako inbertsioen emaitzek Kapitalizazio Fondoa eratuko dute, kasuan kasuko gastuak kenduta.

##### **14. artikulua.- Eskubide kontsolidatuaren definizioa**

Partaideak egindako ekarpenak eta Pentsio Plan honek aplikatutako kapitalizazio-araubidearen ondoriozko zenbatekoak dira partaidearen eskubide kontsolidatuak.

##### **15. artikulua.- Eskubide kontsolidatuen zehaztapena**

Partaide bakoitzaren eskubide kontsolidatuak honela zehaztuko dira: haren ekarpenen kapitalizazio finantzario hutsa  $\square$  inbertsioen emaitzak gastuak eta sortutako galerak kenduta $\square$ , gehi partaideak beste Plan batzuetatik Planera ekarritako eskubide kontsolidatuak.

Eskubide horiek partaide bakoitzak Planeko partaidetza-kontuan duen zatiari dagozkio (kitatu eta/edo ordaintzeko dauden prestazioetarako hornikuntzak kenduta). Kuota-parte hori zehazteko, partaidearen mugimendu guztiei (ekarpenen ordainketari, soberako ekarpenen itzulketari...) kontrabalioa zehazten zaie kontu-plan unitateetan eta gero partaidearen kontuan jasotzen dira.

Atxikipen indibidual bakoitzak, kontu-partaidearen saldoa kontu-plan unitateetan adierazita izango du.

##### **16. artikulua.- Kontu-unitatearen balioa**

Kontu-plan unitatearen balioa egunero zehaztuko da eta ez da aldatuko hurrengo balorazioa egin arte.

Kontu-plan unitatearen balioa ateratzeko, Planeko partaidetza-kontua egun horretan indarrean dauden kontu-plan unitateen kopuruarekin zatituko da, kitatu eta/edo ordaintzeko dauden prestazioetarako hornikuntzak kendu ondoren.

### **17. artikulua.- Eskubide kontsolidatuen ordainketa**

Partaideen eskubide kontsolidatuak beste pentsio-plan edo aurreikuspen-plan aseguratutakoa batean sartzeko bakarrik ordainduko dira.

Dena den, gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia gertatzen bazaio, partaideak eskubide horiek guztiak edo zati bat kobratzeko eskubidea izango du, ordainketa bakarraren edo hainbaten bidez. Eskubideok kobratzeko, gaixotasun larria eta iraupen luzeko langabezia honako hauei gertatu behar zaie:

- 1.- Gaixotasun larria: planeko partaideari, bere ezkontideari eta aurreko edo ondorengo senitartekoren bati, bai eta indarrean dagoen legerian une bakoitzean zehazten den beste edozein erlaziotako pertsonari ere, legerian zehaztutako baldintzetan.
- 2.- Iraupen luzeko desenplegua: partaideari, une bakoitzean indarrean dagoen legeriaren arabera iraupen luzeko langabezia-egoeran badago.

Gaixotasun larriagatik edo iraupen luzeko langabeziagatik eskubide kontsolidatuak kobratuz gero, Planari ezin izango zaio ekarpenik egin, ezta Partaidea jasotzaile den beste edozein pentsio-plani ere, egoerak irauten duten bitartean.

Entitate kudeatzaileak kasu bakoitzean egokiak iruditzen zaizkion agiri guztiak eskatu diezazkioke partaideari, artikulua honetan ematen den eskubidea egiaztatzeko.

Gutxienez hamar urteko antzintasunez egindako ekarpenei dagozkien eskubide kontsolidatuen zenbateko totala edo partziala baliatu ahalko dute alde aurretik partaideek. 2015eko abenduaren 31ra arte egindako pentsio-planetarako ekarpenen ondoriozko eskubideak, baita ekarpen horiei dagozkien errendimenduak ere, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera gongo dira eskuragarri.

### **18. artikulua.- Eskubide kontsolidatuak beste plan batera pasatzea**

Eskubide kontsolidatuak partaideak erabakitzen duenean edo Plana bukatzen denean pasatu daitezke beste plan batera.

Onuradunek ere beren eskubide ekonomikoak pasatzeko eskubidea dute, hala erabakitzen badute eta prestazioa bermatu eta ziurtatzeko baldintzek aldaketa ahalbidetzen badute, eta betiere araudi honetan aurreikusten diren baldintzetan. Eskubideen mugimenduak ez ditu aldatuko prestazioak kobratzeko modalitatea eta baldintzak.

Partaideren batek pentsio-planean dituen eskubide kontsolidatu guztiak edo batzuk beste entitate kudeatzaile batek kudeatutako pentsio-fondo bateko plan batera edo pentsio-plana kudeatzen duen entitatea ez beste baten aurreikuspen-plan aseguratutako batera pasatu nahi

dituenean, helburuko entitate kudeatzaile edo aseguratzaileira joan beharko du intsuldaketa gauzatzeko.

Partaideak sinatutako idazki bidez egin behar da eskaera edo jasota geratuko den beste edozein bitartekoren bidez.

Destinoko merkaturatzailean aurkez daiteke eskaera.

Argibide bat eduki beharko du partaidearen eskaerak, mobilizatu nahi dituen ekarpenak 2007ko urtarrilaren 1aren aurretiko edo ondorengo ekarpenei dagozkien azaltzeko, halakorik izanez gero. Partaideak ez badu argibide hori ematen, mobilizatu beharreko eskubideak proportzionalki kalkulatuko dira, egun horren aurreko edo ondorengo ekarpenak izatearen arabera betiere.

Jatorrizko erakunde gestoreak eskaera jasotzen duenetik kontatzen hasi eta bost egun balioduneko gehieneko epean, banku-transferentzia agindu beharko du erakunde horrek, eta jatorrizko erakunde gordailuzainak, aldiz, egikaritu.

Eskubide kontsolidatu guztiak mugitzen baditu, Partaideari edo onuradunari baja emango zaio Plan honetatik.

Partaide bakoitzaren eskubide kontsolidatuak honela kalkulatuko dira: kontu-plan unitatearen azken balioa partaideak une bakoitzean dituen kontu-plan unitateen saldoarekin biderkatuz.

Hasteko, kontu-plan unitatearen balioa 6,01 eurokoa izango da.

Eskubide kontsolidatuen zenbatekoa intsuldaketa gauzatzen den egunean zehaztuko da.

### **19. artikulua.- Eteneko partaideen eskubide kontsolidatuak**

Eteneko partaideen eskubide kontsolidatuak egokitu egingo dira Planean jarraitzen duten ekitaldietan zehar sortzen diren emaitzekin. Dagozkien kontu-plan unitateen zenbatekoak bere horretan jarraituko du beti.

### **20. artikulua.- Transferentzia gauzatzeko epea**

Aurreko 18. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direnean, helburuko Entitate Kudeatzaileak gehienez ere zazpi eguneko epea izango du partaidearen eskubide kontsolidatuak hark agindutako planera transferitzeko, partaideak Entitate Kudeatzaileari edo bere ordezkariari jakinarazten dien unetik aurrera. Plan honetako eskubide kontsolidatuak entitate kudeatzaile berberak kudeatutako beste batera pasatzen direnean, berriz, epe hori hiru eguneko izango da.

## **V. ATALA.- PENTSIO PLANAREN SUSTATZAILEAREN EGINKIZUNAK**

## **21. artikulua.- Pentsio Planaren Sustatzailearen eginkizunak**

Hauek dira Pentsio Planaren sustatzailearen eginkizunak:

- 1.- Planean partaideen eta onuradunen eskubideei buruz zehazten diren klausulak betetzen diren berrikustea.
- ▯ 2.-Planaren egoera eta dinamika ziurtatu behar duen aktuarioa (edo aktuarioak) aukeratzea.
- ▯ 3.-Fondoaren Funtzionamendu Arauen arabera atxikiko zaion Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeko ordezkaria (edo ordezkariak) izendatzea, baldin eta halako batzorderik badago.
- ▯ 4.-Une bakoitzean indarrean dagoen legeriak eskumena ematen dion gainerako gaitan proposamenak egin eta erabakitzea.
- ▯ 5.-Entitate Kudeatzailearen aurrean Planeko partaideen eta onuradunen interesak judizioz eta judizioz kanpo ordezkatzeta.
- ▯ 6.-Une bakoitzean indarrean dagoen legeriak ematen dizkion gainerakoak.

## **VI. ATALA.- PARTAIDEEN DEFENDATZAILEA**

### **22. artikulua- Araubide juridikoa**

Partaideen Defendatzailearen erakundeak une bakoitzean indarrean dagoen legeria eta bere Prozedura Arauak betez jardungo du. Prozedura Arau horiek *Lan Kide Aurrezkiak sustatutako pentsio-plan indibidualetako Partaideen Defendatzailearen funtzionamendu-eta prozedura-araudian* jasotzen dira.

### **23. artikulua.- Kontzeptua**

Erakunde horrek erantzungo die Partaideek eta Onuradunek edo horien Eskubidedunek planen pentsio-fondoan entitate kudeatzaileen edo gordailuzainen kontra nahiz plan indibidualen entitate sustatzaileen kontra egiten dituzten erreklamazioei.

### **24. artikulua.- Izendapena**

Pentsio Planaren Entitate sustatzaileari dagokio Partaideen Defendatzailea izendatzea, berak bakarrik nahiz beste Entitate sustatzaile batzuekin bilduta (talde berekoak edo lurralde berekoak izateagatik edo bestelako irizpideren bategatik).

Partaideen Defendatzaileak ospe handiko entitatea edo aditu independentea izan behar du.

### **25. artikulua.- Erabakien izaera**

Partaideen Defendatzailearen erabakia erreklamatzailaren aldekoa bada, hau da, planei dagozkien pentsio-fondoan Entitate Kudeatzaile edo Gordailuzainen kontrakoa edo plan

indibidualen Entitate sustatzaileen kontrakoa, aipatutako entitate horiek erabakia betetzera behartuta egongo dira.

Erreklamazioari edo kexari buruz erabakitzeko epea, *Lan Kide Aurrezkiak sustatutako pentsio-plan indibidualetako Partaideen Defendatzailearen funtzionamendu- eta prozedura-araudian ezarritakoa* izango da, une bakoitzean indarrean dagoen legeriak zehaztu badezake ere.

## **26. artikulua.- Gastuak**

Erreklamatzaileek ez dute ezer ordaindu beharko Partaideen Defendatzailea izendatu, erabili eta ordaintzeko gastuengatik, ezta pentsio-plan eta -fondoek ere.

## **27. artikulua.- Funtzionamendu-arauak**

Erakunde horren funtzionamendu-arauak eta, bereziki, prozedura-arauak zehazteko, dagokion araudiari erreparatuko zaio.

## **VII. ATALA.- PARTAIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **28. artikulua.- Partaideen eskubideak**

Hauek dira partaideen eskubideak:

- a.- Onuradun bihurtzen direnean prestazioa jasotzea, edo prestazio hori onuradun izendatzen dituztenen alde ematea.
- b.- Ahalmen hauek erabiltzea, ezarritako mugen barruan:
  - 1.- Ekarpenak handitu edo txikitzea, eta ekarpenen maiztasuna zehaztea.
  - 2.- Prestazioa kobratzeko modua aukeratzea.
  - 3.- Onuradunek jasoko duten prestazioen zatia zehaztea.
  - 4.- Legezko mugak gaintzen dituzten ekarpenak hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen erretiratzea.
- c.- Hiru hiletik behin hauek jasotzea Planari dagokion Fondoaren Entitate Kudeatzailearen eskutik:
  - 1.- Planean dituzten eskubide kontsolidatuen bilakaera eta egoerari buruzko informazioa, egoera-laburpen baten bidez.
  - 2.- Partaideengan eragina duten gertaerei buruzko informazioa, bereziki araudietan, planaren espezifikazioetan, fondoaren funtzionamendu-arauetan edo inbertsio-politikan, eta kudeaketa- eta gordailutze-komisioetan gertatzen diren aldaketei buruzkoa.

- 3.- Fondoaren aktiboek duten bilakaera eta egoeraren, kostuen eta lortutako errentagarritasunen laburpena. Kudeaketa beste entitate batzuekin kontratatzen denean, horren berri ere eman beharko da.
  - 4.- Planari dagozkion pentsio-fondoaren gastu guztiak, partaidetza-kontuarekiko duten portzentajea adierazita.
- d.- Urtean behin, urte natural bakoitzean egindako ekarpenen eta urtearen amaieran eskubide kontsolidatuak duten balioaren ziurtagiria jasotzea Plana sartuta dagoen Fondoaren Entitate Kudeatzailearen eskutik. Ziurtagiriak, gainera, beste hauek ere jaso beharko ditu:
- 1.-Estalitako kontingentzien zehaztapenari buruzko laburpena.
  - 2.-Ekarpenen helburua edo destinoa eta ekarpenen gaineko bateraezintasun-arauak.
  - 3.-Soberako ekarpenen zenbatekoa zein den eta zenbateko hori ordaintzeko bitartekoa jakinarazteko betebeharra duela.
- e.- Planari atxikitzeko orduan Planari buruzko dokumentazio osoa jasotzea, zehazki, Planaren Araudiaren edo Espezifikazioen kopia, atxikipen-buletinaren kopia, pentsio-fondoaren inbertsio-politikaren printzipioen adierazpena eta □partaidearentzako funtsezko datuak□ dokumentua. Halaber, partaideek eskatzen dutenean, planeko partaide izatearen eta hasieran egindako ekarpenaren ziurtagiria emango zaie.
- f.- Planekoak direla kreditatzen duen ziurtagiria eskatzea, baita Planaren edozein klausularena edo dagozkien eskubideenak ere.
- g.- Eskubide kontsolidatuak beste Plan batera eramatea: plan honetako eskubide kontsolidatuak beste pentsio-plan batera edo aurreikuspen-plan aseguru batera pasatu daitezke, partaideak edo onuradunak erabakitzen duenean edo Plana amaitzen denean, Araudi honetako 18. artikuluan xedatzen denaren arabera.

## **29. artikulua.- Partaideen betebeharrak**

Partaideek betebeharrak hauek dituzte:

- 1.- Aldizkako ekarpenak ordaintzea.
- 2.- Hauek idatziz jakinaraztea:
  - a.- onuradunen izena eta prestazioak zein proportziotan jasoko dituzten.
  - b.- partaidearen helbidea eta helbidean gertatzen diren aldaketak.

## **30. artikulua.- Onuradunen eskubideak**

Onuradunek eskubide hauek dituzte:

- a) Prestazioak Espezifikazio hauetan zehazten den moduan jasotzea.

b) Informazio hau jasotzea:

- - Kontingentzia gertatzen den unean, onuradunek informazio hau jaso behar dute:
  - - 1.- Prestazioari berari, itzultzeko aukerei, kobratzeko aukerei eta prestazioa kobratzeko modua aukeratzean beregain hartuko duten arrisku-mailari buruzkoa.
    - 2.- Hala dagokionean, kasuan kasuko entitatearen eskutik beren prestazioaren aseguru- edo berme-ziurtagiria.
  - Hiru hiletik behin, Plana sartuta dagoen Fondoaren Entitate Kudeatzailearen eskutik hauek jasotzea:
    - 1.- Planean dituzten eskubide kontsolidatuen bilakaerari eta egoerari buruzko informazioa, egoera-laburpen baten bidez.
    - 2.- Partaideengan eragina duten gertaerei buruzko informazioa, bereziki araudietan, planaren espezifikazioetan, fondoaren funtzionamendura-rauetan edo inbertsio-politikan, eta kudeaketa- eta gordailutze-komisioetan gertatzen diren aldaketei buruzkoa.
    - 3.- Fondoaren aktiboek duten bilakaeraren eta egoeraren, kostuen eta lortutako errentagarritasunen laburpena. Kudeaketa beste entitate batzuekin kontratatzen denean, horren berri ere eman beharko da.
    - 4.- Planari dagozkion pentsio-fondoaren gastu guztiak, partaidetza-kontuarekiko duten portzentajea adierazita.
- - Gutxienez urtean behin, zehazki, urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan, onuradunak hauexek jasoko ditu Planaren Pentsio Fondoaren entitate kudeatzailearen eskutik:
  - 1.- Aurreko urtean zehar jasotako zenbatekoen eta, hala dagokionean, kontuan egindako atxikipenen ziurtagiria, aurreko urteko abenduaren 31ri buruzkoa.
  - 2.- Planeko eskubide ekonomikoen bilakaerari eta egoerari buruzko informazioa.
- c) Planean Onuradun gisara duten egoeraren ziurtagiria eskatzea.

### **31. artikulua.- Onuradunen betebeharrak**

Hauek dira Onuradunen betebeharrak:

- a) Espezifikazio hauetan ekarpenei dagokienez zehazten diren baldintzak eta tramiteak betetzea.
- b) Entitate Kudeatzaileari idatziz jakinaraztea prestazioak jasotzeko eskubidea justifikatzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak eta familiarak. Era

berean, datuetan gertatzen diren aldaketen berri ematea hilabeteko epean, noiz arteko indarra izango duten adieraziz.

Datu horiek ez badira erabat zehatzak, akastunak badira, daturen bat ezkutatu bada edo jakinarazteko epea ez bada bete, edo familia-egoeren edo egoera pertsonalen aldaketak jakinarazi ez badira, Onuradunak izango dira horien ondorioen erantzule bakarrak.

Onuradunek aldi baterako aktuario edo biziarteko errentaren bat jasotzen badute, urte bakoitzaren hasieran, edo entitate kudeatzaileak nahiz aseguratzaileak eskatzen duenean, bizitza-agiria aurkeztu beharko dute, beren eskubidea kreditatzeko.

- c) Espezifikazio hauetan eta gaiari buruz indarrean dauden gainerako xedapenetan zehazten diren arauak betetzea.

## **VIII. ATALA.- PRESTAZIOAK**

### **32. artikulua.- Definizioa eta izaera**

Planak estaltzen duen kontingentziaren bat gertatzen denean, eskubide ekonomikoren bat aitortzen da Pentsio Planaren onuradunen alde. Horixe da prestazioa.

Prestazioek Pentsio Planaren izaera indibidual eta independente bera dute, eta bateragarriak dira beste prestazio batzuekin, hau da, Planaren bidez posible da bi prestazio edo gehiago jasotzea, baldin eta partaide berarenak ez badira.

### **33. artikulua.- Estalitako kontingentziak**

Planak kontingentzia hauek estaltzen ditu:

#### **a.- Erretiroa.**

Erretiroko kontingentzia zehazteko, kasuan kasuko Gizarte Segurantzaren erregimenari jarraituko zaio.

Erregimen horri heltzerik ez badago, hau da, partaideak lana egiteari uzten dionean ez baditu Gizarte Segurantzaren erregimen batean ere betetzen erretiratzeko prestazioa eskuratzeko baldintzak, kontingentzia 65 urtetik aurrera gertatu dela ulertuko da. Bestalde, lana bukatu ondoren partaidea legezko desenplegu-egoeran geratzen denean ere [ ] lan-administrazioko agintaritzak onartutako enplegua erregulatzeko espedientearen ondorioz [ ] , erretiroari dagokion prestazioa ordainduko zaio, bere adinari erreparatu gabe.

Edozein modutan, behin 60 urte betez gero, partaide orok erretiroko prestazioa aurreratzeko eskubidea dauka, bai eta Gizarte Segurantzaren bidez erretiro partzialera pasatzeko ere, indarrean dagoen araudiak zehazten dituen baldintzak beteta.

Une bakoitzean indarrean dagoen legeriak zehaztutako ekarpenen eta prestazioen araubideko bateraezintasunak errespetatu beharko dira beti.

Erretiro partzialera aukeratu duten partaideak ezingo dira aldi berean partaide eta erretiroagatiko onuradun izan.

- b.-** Ohiko lanbiderako ezintasun osoa eta iraunkorra edo era guztietako lanetarako ezintasun absolutua eta iraunkorra edo baliaezintasun handia, Gizarte Segurantzaren araubidearen arabera.

Onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte prestazio hau jasotzeko:

- - Prestazio-eskaera, partaideak sinatuta.
- - NAN edo IFZ.
- - Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkorra eta osoa, era guztietako lanetarako ezintasun iraunkorra eta absolutua edo baliaezintasun handia kreditatzen duen Gizarte Segurantzaren erakunde eskudunak luzatutako ziurtagiri ofiziala.

Partaidea ez badago Gizarte Segurantzaz afiliatuta, Medikuen Elkargoaren edo bere Mutualitate profesionalaren Ziurtagiri Ofiziala beharko da, pentsioa jasotzeko aukerarik ez duela adierazten duen Gizarte Segurantzaren ziurtagiriarekin batera.

- c.-** Beste oinordeko edo izendatutako pertsona batzuen alde alarguntza-prestazioa edo zurtasun-prestazioa sortu dezakeen partaidearen edo onuradunaren heriotza.

Onuradunek agiri fede-emailea aurkeztu beharko dute, prestazioa kobratzeko eskubidea dutela kreditatzeko.

- d.-** Menpekotasuna

### **34. artikulua.- Prestazioa kobratzeko modua**

Prestazioak honela kobratu daitezke:

- 1.- Kapitala

Prestazioa ordainketa bakarraren bidez jaso daiteke, bai kontingentzia gertatu eta berehala, bai geroagoko data batean.

- 2.- Bermatu gabeko errenta

Bermatu gabeko errenta aukeratuz gero, ondoz ondoko bi ordainketa edo gehiago jasoko dira, maiztasun jakin bati jarraituz (urte bakoitzean gutxienez ordainketa bat). Errentaren zenbatekoa beti berbera izatea edo handituz joatea aukeratu daiteke. Handituz joango den errenta aukeratuz gero, onuradunak beste bi aukera hauek izango ditu igoera hori

zehazteko: errentaren zenbatekoa urtero portzentaje jakin bat handitzea edo urtero aurreko ekitaldiko Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera igotzea.

Errentak kontingentzia gertatu eta berehala edo geroagoko data batean jaso daitezke.

Prestazioa jasotzeko modu hau aukeratzen duten onuradunek hauek guztiak zehaztu beharko dituzte prestazioaren eskarian: errentaren zenbatekoa, errenta kobratzen hasteko eguna eta maiztasuna.

Prestazioak maiztasun jakin batekin kobratzea aukeratu denean, entitate kudeatzaileak onuradunak aukeratutako maiztasunerako (hilean behin, hiru hilean behin, sei hilean behin edo urtean behin) ezarrita dituen egunetan ordainduko ditu, eta horien zenbatekoa gutxienez 30,05 eurokoa izango da, prestazioa likidatuko duen azken ordainketa txikiagoa izan badaiteke ere.

### 3.- Prestazio mistoa: Kapitala-Errenta

Kapital bat eta aurreko ataletan zehaztutako errenta motaren bat jasoko da.

### 4.- Aurrekoak ez bezalako prestazioak, maiztasun erregularrik gabeko ordainketak ematen dituztenak.

Kontingenziengatiko edo likideziako kasu ezohikoengatiko eskubide partzialen kobrantza partzialak egiten direnean, partaideak adierazi egin beharko du jaso nahi dituen eskubide kontsolidatuak 2007ko urtarrilaren 1aren aurreko edo ondorengo ekarpenei dagozkien, halakorik balego.

## **35. artikulua.- Prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortpena**

Onuradunei dokumentazioa aurkeztu eta hamabost eguneko epean aitortuko zaie prestazioa jasotzeko eskubidea. Kapitala berehala jasotzea eskatzen dutenean, onuradunek zazpi egun igaro baino lehen jasoko dute, dokumentazioa aurkezten duten egunetik.

## **36. artikulua.- Prestazioen zenbatekoa**

### 1.- Partaide eta eteneko partaide erretiratu, hil edo ezintzearen ondoriozko prestazioa.

Erretiroaren ondoriozko prestazioaren zenbatekoa, berori ordaintzeko egunean partaideek dituzten eskubide kontsolidatuen parekoa izango da.

### 2.- Onuradunak hiltzearen ondoriozko prestazioa.

Prestazioaren zenbatekoa, partaideek bere garaian kobratzeko aukeratu zuten moduaren arabera zehaztuko da.

- 2.1.- Partaideek errenta bermatua aukeratu bazuten:  
Onuradunen prestazioa, partaideek errenta bermatzea kontratatu zutenean aukeratutako itzulketaren zenbatekoa izango da.
- 2.2.- Partaideek bermatu gabeko errenta aukeratu bazuten:  
Pentsio-planak pentsio-fondoan duen partaidetza-kontuko eskubide ekonomikoen zenbatekoa izango da onuradunen prestazioa.

## **IX. ATALA.- EKARPENAK**

### **37. artikulua.- Ekarpenen maiztasuna**

Planari atxikitzean, partaideek ekarpenen maiztasuna zehaztuko dute. Hilean behin, bi hilean behin, hiru hilean behin, sei hilean behin edo urtean behin egin ditzakete. Bestalde, ekarpenen zenbatekoak beti berdinak edo handituz doazenak izan daitezke. Azken kasu horretan, berriz, beti portzentaje jakin bat edo kantitate finko bat aplikatuz handitu daitezke (Legeak adierazten duen muga gainditu gabe).

Ekarpenen zenbatekoa eurotan zehaztuko da beti.

### **38. artikulua.- Gutxieneko ekarpena**

Hauxe izango da ekarpen erregularren gutxieneko zenbatekoa, aukeratutako maiztasunaren arabera:

<b>Maiztasuna</b>	<b>Zenbatekoa (eurotan)</b>
Hilean behin	30,05
Bi hiletik behin	60,10
Hiru hiletik behin	90,15
Sei hiletik behin	150,25
Urtean behin	300,51

Sustatzaileak erabakiko du gutxieneko zenbateko hori aldatu ala ez. Aldatuz gero, gutxieneko zenbateko berriak berehala aplikatuko zaizkie atxikipen eta aldaketa berriei nahiz berrabiatzei. Gainerako partaideei, berriz, plana harpidetu, berrabiatu edo aldatu zuten urteurrenetik aurrera aplikatuko zaizkie.

### **39. artikulua.- Aparteko ekarpenak**

Ekarpen erregularretatik aparte, partaideek aparteko ekarpenak egin ditzakete. Aparteko eta ohiko ekarpenen zenbatekoak ezin dezake legezko muga gainditu.

### **40. artikulua.- Ekarpenen urteko muga**

Aparteko eta ohiko ekarpenen batura legezko mugara heltzen ez bada, ekarpenak egiten jarraitu beharko da, legezko mugara heldu arte. Une horretatik aurrera ez da inolako ordainagiririk luzatuko urtea amaitu arte.

#### **41. artikulua.- Soberako ekarpenen itzulketa**

Legeak adierazitako muga gainditzen denean, partaideek soberako zenbatekoa erretiratu egin beharko dute, hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen, legeak aurreikusitako zigorrak saihesteko.

Planetik soberako zenbatekoa erretiratzen denean, partaideak urtean zehar egindako ekarpena erretiratu dezake gehienez, urtean zehar beste pentsio-plan edo aurreikuspen-plan aseguratubatetik ekarritako eskubide kontsolidatuak ukitu gabe.

Soberako ekarpenek sortutako irabazi garbiak Planeko gainerako partaideen artean banatuko dira. Galerak sortu badituzte, berriz, ekarpenaren zenbatekotik kenduko dira.

Ekarpenak erretiratzeko eskaerarekin batera, urtean egindako ekarpenen ziurtagiriak aurkeztu behar dira Entitate Kudeatzailearen edo Gordailuzainaren eta horren ordezkarien bulegoetan, hurrengo urteko ekainaren 1a baino lehen. Horrek hurrengo hogeita hamar egun naturaletan itzuliko du zenbatekoa.

Partaideek eskaria eta gainerako agiriak aurreko paragrafoan adierazitako eguna baino beranduago aurkezten badituzte, soberako zenbatekoa ekainaren 30a baino beranduago itzuliko zaie eta, beraz, ondorioz sortu daitezkeen erantzukizunak partaideenak baino ez dira izango.

#### **42. artikulua.- Onuradunen ekarpenak**

Behin erretirora heldutakoan, Pentsio Planari ekarpenak egiten jarraitzeko aukera izango du partaideak.

Dena den, erretiroko prestazioak jasotzen hasitakoan, heriotzaren kontingentziarako bakarrik erabili ahal izango dira ekarpenak. Edozein modutan ere, beste aukera hauek ere badaude:

- 1.-Erretiroko prestazioa jasotzen ari den erretiratua berriro ere lanean hasten bada eta Gizarte Segurantzaren erregimenean alta hartzen badu, erretirorako pentsio-planetarako ekarpenak egiteko aukera izango du, prestazio osoa jasotzen duenean edo kobratzeari utzi eta geratzen diren eskubideak erretirorako uzten dituenean.
- 2.-Erretirora heltzean partaideak Gizarte Segurantzaren beste erregimen batean alta emanda jarraitzen badu beste jarduera batean ari delako, izango du pentsio-planera ekarpenak egiteko aukera. Dena den, erretiroko prestazioak jasotzen hasitakoan, heriotzaren kontingentziarako bakarrik erabili ahal izango dira ekarpenak. Araubide berbera erabiliko da erretiro partziala hartzen duten partaideekin ere.

### **43. artikulua.- Ordainagirien ordainketa**

Kuota erregularrak kobratzeko, Entitate Kudeatzaileak ordainagiriak luzatuko ditu eta hilaren 10ean kargatuko ditu banku-helbidean.

Lehen kuota erregularra Planean harpidetu eta hurrengo hilean kobratuko da (era berean, Plana aldatu edo berrabiatzen denean, egoera berria hurrengo hileko ordainagirian jasoko da). Beraz, une horretatik aurrera zenbatuko dira kuota erregularren mugaegunak eta urtemugak.

Ordainagiriaren zenbatekoa ekarpen erregularrari dagokiona gehi kasuan kasuko zergak batuta zehaztuko da.

Aparteko ekarpenak eskudirutan nahiz Entitate Gordailuzainean Pentsio Planaren izenean irekitako kontura banku-transferentzia eginez gauzatu daitezke. Horrekin batera, eskaria bidali behar zaio Entitate Kudeatzaileari, Pentsio Planaren eta partaidearen izenak zehaztuz.

Ordainagiriaren bat ordaindu ezean, Entitate Kudeatzailea hurrengo hilean kobratzen saiatuko da eta berriro ere ordaindu gabe geratzen bada, partaidea eteneko partaidetzat hartuko da.

Ordaintzeari ezer jakinarazi gabe uzten zaionean, aurretik jakinarazita uzten zaionean bezala jokatuko da, baina sortu daitezkeen kalteak partaideak hartu beharko ditu beregain.

### **44. artikulua.- Ekarpenen, eskubideen eta betebeharren aldaketa eta etendura**

Partaideek ekarpenen maiztasuna, itzulketa eta zenbatekoa nahi dutenean aldatzeko eskubidea dute, baldin eta Plan honetan eta indarrean dagoen legerian zehazten diren mugak errespetatzen badituzte.

Era berean, partaideek ekarpenak eteteko eta berriro abian jartzeko aukera dute.

Ekarpenak aldatu, eten eta berrabiatu nahi dituztenean, partaideek eskaera egiteko betebeharra dute.

## **X. ATALA.- PARTAIDEEN ALTAK ETA BAJAK**

### **45. artikulua.- Alta-eskaera**

Pentsio Planari atxikitzeko, Atxikipen Buletina behar bezala beteta eta sinatuta eman beharko dio partaideak Entitate Kudeatzaileari. Horrekin batera, ordainagiriak ordainduko dituen banku-entitateari kontuan kargatzeko agindua luzatuko dio.

### **46. artikulua.- Benetako alta**

Entitate Kudeatzaileak eta/edo Gordailuzainak eskaria onartu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean Plana.

#### **47. artikulua.- Partaideei eman beharreko dokumentazioa**

Partaideak behin Pentsio Planean sartuta, Entitate Kudeatzaileak Planeko kide izatearen eta egindako hasierako ekarpenaren ziurtagiria emango die, hala eskatzen dutenei. Era berean, Planaren Araudiaren kopia, pentsio-fondoaren inbertsio-politikaren printzipioen adierazpena eta Atxikipen Buletinaren kopia emango dizkie, eta partaidearentzako funtzesko datuak.

#### **48. artikulua.- Partaideen baja**

Partaideei halakoetan emango zaie baja Pentsio Planetik:

- 1.-Planean aurreikusitako kontingentzietako bat gertatu dela jakinarazitakoan.
- 
- 2.-Eskubide ekonomikoen zenbateko osoa beste pentsio-plan edo aurreikuspen-plan aseguratu batera pasatutakoan.

### **XI. ATALA.- PLANAREN BERRIKUSPENA ETA ALDAKETA**

#### **49. artikulua.- Finantza- eta aktuario-sistemaren berrikuspena**

Plana formalizatzen den egunetik aurrera, Entitate sustatzaileak Planaren aktuario-berrikuspena egingo du gutxienez hiru urtetik behin. Berrikuspen horren orde, Entitate Kudeatzaileak txosten ekonomiko-finantzarioa egin dezake eta ikuskatutako Urteko Kontuetan sartuko da, indarrean dagoen legeriak agintzen duen edukiarekin.

Berrikuspenaren ondoren, ekarpenak eta zergak, aurreikusitako prestazioak edo bestelako aldagai batzuk aldatzeko premia edo komenientzia dagoela ikusten bada, Planaren Entitate sustatzaileari horren berri emango zaio eta horrek egokiena deritzona proposatuko du.

Erabakia Sustatzaileak hartuko du, Plana aldatzeko atalean agintzen dena betez.

#### **50. artikulua.- Plana aldatzeko baldintzak eta prozedurak**

Entitate sustatzaileak aktuario-berrikuspenarekin zerikusirik ez duten arrazoietan oinarrituta ere proposatu dezake Plana aldatzea. Ekimenak Planaren Sustatzailearen onespena jaso beharko du, erabakiak hartzeko duen prozedura erabiliz, eta aldaketaren arrazoiak azaldu beharko ditu.

Partaideek, Planetik aldentzeko eskubidea izango dute, hala nahi izanez gero. Alde egin nahi dutenean, eskubide kontsolidatuak kalkulatuak zaizkie, nahi badute aldatu diren arauen arabera.

Entitate kudeatzailea eta/edo gordailuzaina aldatzeari eta Plana atxikita dagoen Pentsio Fondoa aldatzeari deritzo Plana aldatzea.

## **XII. ATALA.- PLANA BUKATZEKO ARRAZOIAK ETA PLANA LIKIDATZEKO ARAUAK**

### **51. artikulua.- Plana amaitzeko arrazoiak**

Plana arrazoi hauengatik amaituko da, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen arrazoietatik aparte:

- a) Planaren Sustatzaileak hala erabaki duelako.
- b) Partaiderik eta onuradunik ez dagoelako.
- c) Pentsio Planaren Sustatzailea desegin delako.

▫

Kontrakoa erabaki ezean, ez da Plana amaitzeko arrazoia izango sustatzailea beste batekin bat egiteagatik edo ondare osoa lagatzeagatik desegitea. Halakoetan, sortzen den entitatea edo entitate lagapenduna izango da Pentsio Planaren Sustatzailea.

Adierazitako arrazoiaren bat sortzen denean, Ekonomia eta Hazienda Ministerioari jakinarazi beharko zaio, baita partaideei eta onuradunei ere. Plana amaitzeko arrazoi zehatza zein den eta likidatzeko tramiteak hasi direla jakinaraziko zaie, une bakoitzean indarrean dagoen legeriak ezarritako administrazio-tramiteak betez.

### **52. artikulua.- Desegitea eta likidazioa**

Aurreko artikuluan Plana amaitzeko aurreikusi den arrazoietakoa bat gertatzen denean, Plana likidatzeari ekingo zaio.

Pentsio Planaren Entitate sustatzailea desegiten bada, Entitate Kudeatzaileak haren ordezkoa onartu dezake.

Planaren Sustatzaileak likidaziorako zenbait jarduera Entitate Kudeatzaileari eta Gordailuzainari proposatu diezazkieke, eta horiek proposamenok onartzeko zein ez onartzeko askatasuna izango dute.

Sustatzaileari likidazio-lan hauek dagozkio:

1. Pentsio Fondoari Planaren partaidetza-kontuari buruz premiazko txostena eskatzea.
2. Pentsio Fondoaren barruan Planaren partaidetza-kontuari dagokion zenbatekoa likidatzeko agintzea.
3. Planak zor dituen zenbatekoak ordaintzeko agintzea.
4. Beste Pentsio Plan batetik edo edozein aseguru- nahiz finantza-erakundetatik emandako prestazioen banakako bermea lortzea.

5. Partaide bakoitzari bere eskubide kontsolidatuen arabera Planaren partaidetza-kuotaren barruan dagokion zenbatekoa kalkulatzea.
6. Partaideen eskubide kontsolidatuak partaideek adierazitako Pentsio Planera pasatzea. Likidazio-prozesuaren hasiera jakinarazten denetik hilabete igaro ondoren Partaideek ez badute horri buruz ezer aditzera eman, Entitate Kudeatzaileak berak aukeratutako Pentsio Planera pasatuko ditu bakoitzaren eskubide kontsolidatuak.